



Arartekoaren 2014ko martxoaren 6ko ebazpena. Beraren bidez, Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio ez dezala baimendu hezkuntza administraziokoak ez diren laguntza-langileen presentzia sailaren mendeko hezkuntza zentroetako bi urteko ikasgeletan.

Aurrekariak

1. 2011. urtean, orduan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila zenak erakunde honi jakinarazi zion diagnostiko orokor bat egiteko asmoa zuela, haur hezkuntzako lehenengo zikloan gerta litezkeen egoera ezberdinak ezagutzeko.

Horregatik, ofiziozko espediente bat hastea erabaki genuen, egoera horien jarraipena egiteko, batez ere erakunde honen aurrean kexa bat sorrarazi zuen egoera bati: zehazki, bi urteko geletarako ezarritako laguntza osagarriko edo errefortzuko langileak familien esku daudeneko hainbat hezkuntza zentro.

2. 2012ko irailaren, sail horrek berretsi zigun diagnostiko horren esparruan hezkuntzako ikuskaritzak esku hartze bat egin zuela. Esku hartzearen amaieran, txosten xehe bat egin zen, Bizkaiko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko guztietako bi urteko ikasgeletan laguntzaileak zeudela azaltzen.

Gainera, jakinarazi zigun une hartan esku hartzeko ildoak zehazteke zeudela eta jarduteko egutegia ezarri beharra zegoela. Harrezkero ez du informazio berririk bidali.

3. Hezkuntzako arduradunak txandakatu zirenean, erakunde honetan erabaki genuen orain Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Saila deritzonari laguntza eskatzea eta gai honetan (sailaren mendeko ikastetxe publikoetako bi urteko geletako laguntzaileen presentzian) egin diren balizko jarduketak ikertzea.

Esku-hartze horren erantzun moduan, Hezkuntzako ikuskaritza nagusiaren txostena jaso dugu erakunde honetan eta, bertan, honako hau aipatzen da:

"Gaurko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eskatu du Arartekoaren eskaerari erantzuna eman ahal izateko informazioa eta, jakin duzuenez, Hezkuntza Ikuskaritzaren veste esku-hartze bat gertatu zen 2012-2013ko ikasturtearen lehen hiruhilekoan. Bizkaiko sortzi ikastetxe publikotako zuzendariekin elkarrizketa bat besterik ez zen izan esku-hartze



hori, lurralde horretara mugatzen baita laguntza pertsonalaren esku-hartzeak ikastetxeetan sortutako egoera dela-eta planteatu den arazoa.

Egindako elkarrizketetatik ondorio batzuk ateratzen dira:

- 1. Zuzendari batzuk ez dira jabetzen, ikasleen guraso elkarteek (GE) kontratatutako pertsonak ikastetxeetan esku hartzeko baimena ematean, beren gain hartzen duten arduraz.*
- 2. Krisi ekonomikoak eragiten die familiei eta, horregatik, ikastetxe batzuek laguntza-pertsonal hori ez izatea onartzen dute.*
- 3. Irakasle eta familien ustez, ikastetxetik kanpoko pertsonalak ematen duen zerbitzua onuragarria da haien seme-alabentzat.*
- 4. Guraso Elkarteek kontratatutako pertsonalarekin jarraitzeko asmorik ez duten ikastetxeetan irakasleak berrantolatuko dituzte, bi urteko haurrei ahalik eta arreta onena emateko. Dena den, Haur Hezkuntzan zeuden errefortzuak ez kentzeko, giza baliabideak eskatuko dizkiote Hezkuntza Sailari.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila jabetzen da hezkuntza-sistematik kanpoko irakaskuntza- eta hezkuntza-laguntzako pertsonala kontratatzeak dakarren arazoaz eta, horregatik, BIGErekin, GE desberdinen ordezkaria den aldetik, eta SAREANekin, ikastetxeetako zuzendaritzak ordezkatzeko dituen organismoa del aldetik, batera ikastetxeetako zuzendaritzekin eta GEEkin esku-hartzeak egiten jarraituko du, gaur egun indarrean dauden kontratuek bukatu ahala berriro ez daitezela.

2013-2014ko ikasturterako planifikazioan, GE kontratatutako pertsonen zerbitzuekin jarraitzen ez duten ikastetxeen egoera aztertuko dute Lurralde Ordezkaritzetako plangintza-zerbitzuek."

Gogoetak

1. Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legean hartutako konpromisoak, zero urtetik aurrera eskolaratzea modu mailakatuan ezartzeari buruzkoak, hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan bi urteko gela asko irekitzea ekarri du.

Konpromiso horri erantzuteko behar den programazio edota plangintza lana egitea eta kalitatezko hezkuntza-eskaintza bermatzeko behar diren giza baliabideak ematea hezkuntzako administrazioaren erantzukizuna da.



Irakaskuntzako langileei dagokienez, unibertsitatekoak ez diren irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak zenbait irizpide-neurri erreferentzial dauzka haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeei baliabideak esleitzeko. Neurri horiek bi urteko ikasgeletako laguntzaileentzako berariazko kreditu bat aitortzen dute, eta irakasle gehigarrien kreditu baterako aukera ere ematen dute haur hezkuntzako bi eta hiru urteko ikasleen gela kopuru handia duten ikastetxeentzat.

Bestalde, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan ikasturtea antolatzeari buruzko urteko ebazpenetan aukera ematen da langile espezifikokoak hornitzeko, batez ere irakaskuntza ez-formalarekin zerikusia dutenak. Langile horien artean hezkuntzako lan kontratadun langileak daude (hezkuntza-laguntzako espezialistak), hezkuntzako premia bereziak dauzkaten ikasleei berariazko laguntza ematen dietenak. Ebazpen horietan, ordea, ez da antzeko figura laguntzailerik aipatzen bi urteko hasierako etaparako.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoan, hezkuntzako ikuskaritzak egindako ikerketari esker jakin genuen 2011/2012 ikasturtean guztira 176 pertsonak laguntzaile lanak egiten zituztela hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan, zenbait formatu, ordutegi eta kontratarirekin.

Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Saileko egungo arduradunek diotenez, irakasleak kontratatzeako sistema arruntetik kanpoko kontratazio horiek dakarten arazoa ezagutzen dute. Baina ikastetxeetako zuzendaritzekin eta guraso elkarteekin egin duten esku hartzea dauden kontratazioak ez berritatzeko baino ez dira izan.

Erakunde honen ustez, esku hartze hau ez da nahikoa. Egoera honek aurrera jarraitu ahal izateak eta denboran luzatu ahal izateak esan nahi du ikastetxe batzuek ezikusia egin ahal dietela EAEko ikastetxe guztientzat ezarri diren baliabide-esleipen irizpideei, eta irizpide horiek aplikatu beharrean hezkuntzako administrazioak kudeatzen ez dituen giza baliabideak eskuratu ahal dituztela. Horrek bi urteko ikasleak eskolatzeko baldintza berdintasuna arriskuan jartzen du.

Besterik da sailak pentsatzea babes-langile horiek beharrezkoak direla kalitatezko hezkuntza eskaintza bermatzeko. Hala balitz, baliabide horiek bere langileekin hornitu beharko lituzke hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxeetako bi urteko gela guztietan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



Gomendioa

Ez ditzala baimendu hezkuntza administraziokoak ez diren laguntza-langileak sailaren mendeko ikastetxeetako bi urteko geletan edo, bestela, baliabide horiek, bere langileak erabiliz, sail horretako ikastetxeetako bi urteko gela guztietara hedatu ditzala.

